# Jornadas eremuak 2022 . presentación de proyectos y actividades • eremuak jardunaldiak 2022 . Proiektuen eta ekintzen aurkezpena •

sala Z aretoa
**tabakalera**

## Ostirala, urriak 28 / Viernes, 28 de octubre

| | |
|---|---|
| **17:00** | Aurkezpena/Presentación<br>Aitziber Atorrasagasti<br>(Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco)<br>Clara Montero<br>(Tabakalera)<br>José Ramón Amondarain, Aimar Arriola, Leire Muñoz<br>(eremuak) |
| **17:15** | Raúl Dominguez |
| **17:45** | Mikel Ruiz Pejenaute |
| **18:15** | Gu, residencia *Ondoko* |
| **18:45** | Atsedena / Descanso |
| **19:00** | Basilika |
| **20:00** | Aurkezpena: eremuak #9 aldizkaria<br>Presentación revista eremuak #9 |
| **20:15** | Clara Elizondo (performance) |

## Larunbata, urriak 29 / Sábado, 29 de octubre

| | |
|---|---|
| **11:00** | Iñaki Imaz |
| **11:30** | Claudia Rebeca Lorenzo |
| **12:00** | Laida Lertxundi |
| **12:30** | Galderen txanda / Turno de preguntas |
| **13:00** | Mahai-ingurua / Mesa redonda<br>Halfhouse (Alberto Peral)<br>Gabriele Muguruza<br>Irantzu Yaldebere |
| **17:00** | Santiago F Moysterín |
| **17:30** | Miren Candina |
| **18:00** | Galderen txanda / Turno de preguntas |
| **18:15** | Atsedena / Descanso |
| **18:30** | Guillermo Orjales |
| **19:00** | Nazario Díaz |
| **19:30** | Itziar Bilbao Urrutia |

**28 y 29 de octubre de 2022 • 2022ko urriaren 28an eta 29an •**

Aurtengo Jardunaldien xedea da eremuak erakusketa kolektiboaren hirugarren edizioarekin –Hamahiru du izena– harreman- eta bizikidetza-esparrua sortzea. Lau urtean behin egiten da erakusketa hori, eta testuinguru artistiko hurbilari «pultsua hartzea» du helburu. Tabakaleran egingo da, 2022ko urritik abendura bitartean. Hala, Jardunaldietako parte-hartzaileen artean erakusketako zenbait artista egongo dira, eta, horiez gain, beste artista gonbidatu batzuk, erakusketatik «kanpo» dauden baina horren testuinguru zabala ulertzeko garrantzitsuak diren hainbat alderdi jorratuko dituztenak. Halaber, azken urtean eremuaken bidez babestutako proiektuetako batzuk aurkezteko ere balio dute Jardunaldiek.

Este año las Jornadas están ideadas como un espacio de relación y convivencia con Hamahiru, tercera edición de la exposición colectiva eremuak que, con carácter cuatrienal, tiene como objetivo «tomar el pulso» al contexto artístico más cercano y que se celebra en Tabakalera entre octubre y diciembre de 2022. Así, entre los participantes en las Jornadas están algunos artistas pertenecientes a la exposición, complementados por otras invitadas que apuntarán a diferentes aspectos que se sitúan «fuera» de la exposición, pero que son importantes para entender el contexto más amplio donde esta se inserta. Asimismo, las Jornadas sirven de presentación de algunos de los proyectos apoyados a través de eremuak en el último año.

eremuak

EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA — DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

TABAKALERA

## Raúl Domínguez

Barakaldo, 1984

Artista. Arte Ederretan lizentziaduna (UPV/EHU). Batez ere marrazketan jarduten du. Erakustareto hauetan egin ditu erakusketak, besteak beste: CarrerasMugica galerian, *Media hora de sol* (2022) eta *Palabra de conejo* (2016), Pelaires galerian, *Es ir a* (2019), eta Bilboko Rekalde Aretoan (2014).

Artista. Licenciado en Bellas Artes por la UPV/EHU. Centra su trabajo principalmente en el dibujo. Ha expuesto en la galería CarrerasMugica, *Media hora de sol* (2022) y *Palabra de conejo* (2016), en la galería Pelaires, *Es ir a* (2019), y en la Sala Rekalde de Bilbao (2014), entre otras.

## Mikel Ruiz Pejenaute

Zumarraga, 1990

Zumarragan (Gipuzkoa) bizi da eta bertan egiten du lan. Arte Ederretan lizentziatua (UPV/EHU) da. 2014an, Ikerketa eta Sormena Artean Masterra (Increarte, UPV/EHU) egin zuen. 2017an, Tabakalerak (Donostia) eskainitako eta Itziar Okarizek eta Jon Mikel Eubak emandako lehen *Artistentzako lantegian* parte hartu zuen.

Vive y trabaja en Zumárraga (Gipuzkoa). Licenciado en Bellas Artes (UPV/EHU), en 2014 realiza el Máster en Investigación y Creación en Arte (Increarte, UPV/EHU) y en 2017 participa en el primer *Taller para artistas*, impartido por Itziar Okariz y Jon Mikel Euba en Tabakalera (San Sebastián).

## Gu

Arte Ederren Fakultatetik irtendako taldea.
Grupo procedente de la Facultad de Bellas Artes.

Akane Saraiva, Alba Cuesta, Alba Rúa, Amaia Ibarbia, Ainhoa del Barco, Camilo Tonon, Elena Aguado, Estéfana Román, Ibon Landa, Irati Petuya, John Mark Hill III, Jone Erzilla, Lucía Jayo, María Cascón, Mikel Sarmiento, Miren Candina, Nagore Chivite, Oihane Mitxeo, Víctor Ortuño, Zihara Merino

## Basilika

Gaur egun, Basilika podcasting espazioa honako hauek osatzen dute: Maider Arregi, Gorka Bereziartua, Enrike Hurtado, Oihane Iraguen, Sahatsa Jauregi, Miren Jone Lizarzaburu, Pablo Marte, Kepa Matxain, Lur Olaizola, Beñat Sarasola, Jone Alaitz Uriarte, Ainhoa Urien Telletxe e Irati Urrestarazu.

Hoy por hoy, el espacio de podcasting Basilika está compuesto por: Maider Arregi, Gorka Bereziartua, Enrike Hurtado, Oihane Iraguen, Sahatsa Jauregi, Miren Jone Lizarzaburu, Pablo Marte, Kepa Matxain, Lur Olaizola, Beñat Sarasola, Jone Alaitz Uriarte, Ainhoa Urien Telletxe e Irati Urrestarazu.

## Clara Elizondo

Donostia-San Sebastián, 1995

Artista. Irakasle-ikasketak egin zituen Bartzelonako Unibertsitatean. Nazioko eta nazioarteko arte-egonaldiak eta erakusketak egin ditu (Frantzia, Belgika, Portugal eta Turkia). Gaur egun, ehunak lantzen ditu jantziak eta eskulturak egiteko. Bilaketa estetikoa da bere lanaren ezaugarri, eta arte sakratua hartzen du erreferentziatzat.

Donostia-San Sebastián, 1995. Artista y maestra por la UB. Ha realizado residencias artísticas y exposiciones nacionales e internacionales (Francia, Bélgica, Portugal y Turquía). Actualmente, trabaja el textil en la creación de prendas y esculturas. Su trabajo se caracteriza por ser una búsqueda estética con el arte sacro como referente.

## Iñaki Imaz Urrutikoetxea

Donostia-San Sebastián, 1965

Margolaria eta Arte Ederretako irakaslea eta doktorea da. eremuakeko batzorde teknikoko kidea izan da. Erakusketak: *Alimentación, lencería, bazar*; *Yolanda*; *Doble vínculo*; *5 lobitos*; *Masa cándida*; *Lo Mío*; *ARCO 2019*; *68aren ostean*; *Arenzana Imaz Intxausti Montón Peral*; *El Contrato*; *Iñaki Imaz / Kiko Pérez*.

Donostia-San Sebastián, 1965. Pintor, profesor y doctor en Bellas Artes. Ha sido miembro de la comisión técnica de eremuak. Exposiciones: *Alimentación, lencería, bazar*; *Yolanda*; *Doble vínculo*; *5 lobitos*; *Masa cándida*; *Lo Mío*; *ARCO 2019*; *Después del 68*; *Arenzana Imaz Intxausti Montón Peral*; *El Contrato*; *Iñaki Imaz / Kiko Pérez*.

## Claudia Rebeca Lorenzo

xxx, 199x

Ikerketa eta Sormena Artean Masterra egin zuen (UPV/EHU), eta egonaldi bat BilbaoArten. Kalostran, MACBAren PEI programan, Villa Bergerien eta Tabakaleran hartu du parte. Erakusketak: *La piel descubierta*, *Pastora Foley*, *Talud mediodía*, *El sentido de la escultura*, *Pala de plata*, *Generaciones 2020*, *Su boca abierta* eta *Bi, Dos, Two*.

Máster en Investigación y Creación en Arte (UPV/EHU), realiza una residencia en BilbaoArte. Ha participado en Kalostra, el PEI del MACBA, Villa Bergerie y Tabakalera. Exposiciones: *La piel descubierta*, *Pastora Foley*, *Talud mediodía*, *El sentido de la escultura*, *Pala de plata*, *Generaciones 2020*, *Su boca abierta* y *Bi, Dos, Two*.

## Laida Lertxundi

Bilbo-Bilbao, 1981

«Landscape Plus» (Paisaia eta zerbait gehiago) deitzen dio bere praxiari. Talde-ariketak eta behaketa-argazkigintza musikarekin, ekintzekin eta gertaerekin ausaz konbinatzeko modua da hori; eta lurraren eta gorputzaren arteko paralelismoak ezartzen ditu, plazer-eta esperientzia-gune gisa.

Denomina su praxis «Landscape Plus» (Paisaje y algo más): una manera de combinar ejercicios grupales y la fotografía de observación con música, acciones y eventos al azar, y que establece paralelismos entre la tierra y el cuerpo como centros de placer y experiencia.

Lertxundi calls her praxis "Landscape Plus", a way of randomly combining observational photography and group exercises with music, actions, and events; establishing parallels between earth and body as centres of pleasure and experience.

## Halfhouse

Halfhouse (Bartzelona) etxe baten eta elkartruke eta komunikazio artistikoko gune baten arteko uztarketa da. Bere helburuetako bat artistekiko zuzeneko lanari, ekoizpena sustatzeari eta programazioaren garapen kritikoari lehentasuna ematea da. Halfhouse Sinéad Spelman eta Alberto Peral artisten ekimena da.

Halfhouse (Barcelona) es una fusión de casa y espacio de intercambio y comunicación artística. Uno de sus objetivos consiste en priorizar el trabajo directo con los artistas, el apoyo a la producción y el desarrollo crítico de la programación. Halfhouse es una iniciativa de los artistas Sinéad Spelman y Alberto Peral.

Halfhouse (Barcelona) is a combination of home and art space for exchange and artistic communications. One of the aims is to prioritise working directly with artists, supporting their productions and the critical development of their programming. Halfhouse is an initiative of the artists Sinéad Spelman and Alberto Peral.

## Gabriele Muguruza

Donostia-San Sebastián, 1992

Arteko gradua ikasi zuen UPV/EHUn eta Central Saint Martinsen. Increarte masterra burutu zuen, eta Kalostran parte hartu izan du. Hainbat lekutan erakutsi du bere lana: Getxoarten, Okela Sormen Lantegian, HARRIAK programaren barruan eta Azkuna Zentroan, besteak beste. Egonaldia eta erakusketa egin zituen Halfhousen.

Donostia-San Sebastián, 1992. Grado en Arte en la UPV/EHU y en el Central Saint Martins. Máster en Increarte. Ha participado en Kalostra y ha mostrado su trabajo en Getxoarte, Okela Sormen Lantegia, dentro del programa HARRIAK y Azkuna Zentroa, entre otros. Ha completado una estancia con exposición en Halfhouse.

## Irantzu Yaldebere

Bilbo- Bilbao, 1994

Artista. Okela Sormen Lantegian, Batzar Nagusietan, Aire Galerian eta Rekalde Aretoan egin ditu erakusketak, besteak beste. *eremuak #6* aldizkarian kolaboratu du eta Feministaldian hartu du parte. Itziar Okarizek eta Jon Mikel Eubak emandako *Artistentzako lantegi*ko partaide ere izan da. Duela gutxi, egonaldia egin du Halfhousen, Bartzelonan.

Artista. Ha expuesto en sitios como Okela Sormen Lantegia, Juntas Generales, Galería Aire o Sala Rekalde. Ha colaborado en *eremuak #6* y ha intervenido en Feministaldia. Ha participado en *Taller para artistas*, dirigido por Itziar Okariz y Jon Mikel Euba, y recientemente ha estado de residencia en Halfhouse, Barcelona.

## Santiago F Mosteyrín

Madril-Madrid, 1982

Artista, biologoa eta irakaslea da. Azaleraren nozioa aztertzen du, eta erotismoa eta erresistentzia ditu ardatz. Erakustareto hauetan aurkeztu du bere lana: Bulegoa z/b, La Fresh Gallery, SMBA eta La Casa Encendida, besteak beste. Egonaldiak egin ditu Jan van Eyck Academien, BilbaoArten eta The Croft/PRO ARTIBUSen.

Madrid, 1982. Artista, biólogo y profesor, explora la noción de superficie y se centra en el erotismo y la resistencia. Ha expuesto en Bulegoa z/b, La Fresh Gallery, el SMBA y La Casa Encendida, entre otros. Ha sido residente en Jan van Eyck Academie, BilbaoArte y The Croft/PRO ARTIBUS.

## Miren Candina

Hondarribia, 1994

Artean graduduna (UPV/EHU) da, eta parte hartu du Itziar Okarizek eta Jon Mikel Eubak emandako *Artistentzako lantegian* (2017), *Curating Positions* ikerketa taldearen topaketan (2022) eta zenbait erakusketa kolektibotan: *Bi Dos Two* (2018), *Allegoria Total* (2018) eta *Espace GT* (2019), besteak beste.

Graduada en Arte (UPV/EHU), ha participado en *Taller para artistas*, impartido por Itziar Okariz y Jon Mikel Euba (2017), en el encuentro del grupo de estudios *Curating Positions* (2022) y en exposiciones colectivas: *Bi Dos Two* (2018), *Allegoria Total* (2018) y *Espace GT* (2019), entre otros.

## Guillermo Orjales

Getxo, 1986

Arte Ederretan lizentziaduna (UPV/EHU) da, eta estanpazio-, patroigintza- eta jantzigintza-ikasketekin osatu du unibertsitateko prestakuntza. Gaur egun, moda-alorreko lanbidearekin batera, bestelako proiektu eta elkarlanak ere egiten ditu, ehuna, grafikoa eta argazkia uztartzen dituztenak.

Licenciado en Bellas Artes por la UPV/EHU, completa su formación con estudios de estampación, patronaje y confección de vestuario. Actualmente compagina su trabajo en moda con proyectos y colaboraciones en los que desarrolla una labor que oscila entre lo textil, lo gráfico y la fotografía.

## Nazario Díaz

Linares, 1985

Batez ere, arte performatiboen arloan jarduten du, gorputzaren, begiradaren eta idazketaren arteko tentsioan arreta jarriz. Ikaskuntzako zenbait testuinguru kolektibotan hartu du parte, hala nola Praktika Eszenikoko eta Kultura Bisualeko Masterrean (Madril, 2016-2017) eta Arte Performatiboetan Sortzeko Programa Aurreratuan (Forum Dança, Lisboa, 2021-2022). Gaur egun, Lisboa eta Bilbo artean bizi da.

Desarrolla su trabajo en las artes performativas, centrándose en la tensión entre cuerpo, mirada y escritura. Participa en contextos colectivos de aprendizaje: Máster en Práctica Escénica y Cultura Visual (Madrid, 2016-2017); Programa Avanzado de Creación en Artes Performativas (Forum Dança, Lisboa, 2021-2022). Reside entre Lisboa y Bilbao.

## Itziar Bilbao Urrutia

Bilbo-Bilbao, 1966

Artista, pornografoa eta ekintzailea da. Eduki fetixista sortzen du, eta identitatea, sexu-agentetza eta zentsura esploratzeko erabiltzen du. Orain gutxi, argitalpenen doktorego-titulua lortu du Kingstongo Unibertsitatean, artearen, feminismoaren eta emakumezkoen sexu-nagusitasunaren –Femdom– arteko loturari buruz egin duen ikerketari esker.

Artista, pornógrafa y activista. Utiliza la producción de contenido fetichista para explorar cuestiones de identidad, agencia sexual y censura. Acaba de recibir un doctorado por publicaciones en la Universidad de Kingston, gracias a su investigación sobre la intersección entre arte, feminismo y supremacía sexual femenina o Femdom.